

INTSUMISIOA

Azken intsumiso presoak espetxeetatik irteten hasi dira, delituak zigorgabetuta

Hiru euskal intsumiso aske geratu ziren atzo, eta etzi askatuko dute azkena

Derrigorrezko zerbitzu militarari uko egiteagatik kartzelan geratzen ziren Euskal Herriko azken lau intsumisoetatik hiru aske utzi zituzten atzo, Espainiako Buletin Ofizialean haien delituak zigorgabetu dituztela argitaratu eta gero —Espainiako Gobernuak onartu eta bost hilabete geroago—. Azken intsumiso presoak etzi askatuko dute. Kartzelatik irten diren arren, armadak desagertu arte borrokan jarraituko dutela aldarrikatu dute intsumisoek. /6-7



JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

Jose Inazio Royo, atzo libre geratu ziren hiru intsumisoetako bat, Basauriko kartzelatik irteten.

GEHIGARRIAK



/erdiko orrialdeetan

ALDERDI POLITIKOEN LEGEA



Milaka lagunek salatu dute «Batasunaren aurkako eraso»

Manifestazio zaratatsuan Euskal Herriarentzat «demokrazia eta askatasuna» eskatu zuten atzo, Iruñean /8

ELKARRIZKETA

DIEGO LOPEZ GARRIDO

PSOEK Espainiako Kongresuko Batzorde Konstituzionalean duen ordezkaria



«Batasuna legez kanpo utzita, ez da arazoa konpontzen, baina lagun dezake» /10

GREBA OROKORRA

Ekainaren 19ko deialdiaren alde egin dute alderdi abertzaleak

EB-IUk eta PSEk, berriz, ekainaren 20rako CCOOk eta UGTk eginiko greba deialdiarekin egin dute bat /20

IBILALDIA

Milaka euskaltzale bilduko ditu gaur Ibilaldiak, Getxoko ibilbidean

San Nikolas ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoek dena prest daukate jai erraldoiak arrakasta izan dezan. Milaka lagun espero dituzte gaur, eta, horregatik, hara joateko autoa ez beste garraio mota bat erabiltzera aholkatu dute antolatzaileek. /17



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

KOLONBIA

Baliteke Alvaro Uribe liberal disidenteak lehen itzulian lortzea lehendakaritza

Lehendakaritzarako hauteskondeak egingo dituzte gaur Kolonbian. Uribe gehiengo osotik hurbil dago inkestetan. Abstentzioa da Kolonbiako bozen ezaugarri nagusia. Kolonbiako talde gerrillariak hauteskondeak eragozten saiatuko dira hainbat herritan. /22